

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA.  
H.A.E.E.

EBAZPENA, 2008ko uztailaren lekoa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, herri-administrazioaren arloan prestakuntza eta ikerketarako bi bekaren deialdia bete gabe geratu dela adierazten duena.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, 2008ko apirilaren 29ko ebazpenaren bidez (2008ko maiatzaren 16ko EHAA), bi bekatarako deia egin zuen, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuan iharduteko.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik eta eskabiderik aurkeztu ez denez, bi bekaren deialdia bete gabe geratu dela adierazten da honen bidez. Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT

1.- Herri-administrazioaren arloan prestakuntza eta ikerketarako bi bekaren deialdia bete gabe geratu dela adieraztea.

2.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. Artikuluaren eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da ebazpen honen argitalpena egiten den eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtsu hori ebazpena hartu zuen organoari aurkez dakioko edota, bestela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari. Errekurtsuari erantzuna ematen ez bazaio, ezezkotzat hartu beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 1a.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HERRI-ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE  
ADMINISTRACION PUBLICA

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaria,  
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.